

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 1/2024 Zerga premiazko araugintzako dekretua, otsailaren 20koa. Onespena ematea Arabako zerga araudira egokitzeari Balio Erantsiaren gaineko Zergan, Elektrizitatearen gaineko Zerga Berezian eta Energia Elektriakoaren Ekoizpen Balioaren gaineko Zergan egindako zenbait aldaketa, baita Kontseiluaren 2016ko uztailaren 12ko 2016/1164 (EB) Zuzentarauaren transposizioa osatzeko xedez egindakoak ere**

Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazken ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko eta lehortearen ondorioak arintzeko neurriak hartzen dituen abenduaren 27ko 8/2023 Errege Lege Dekretuak ezarri dituen zerga arloko neurriek eragina dute balio erantsiaren gaineko zergan, elektrizitatearen gaineko zerga berezian eta energia elektriakoaren ekoizpen balioaren gaineko zergan.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunak, zeina maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onetsi baitzuen, 23 quater, 26. eta 33. artikuluetan ezartzen du energia elektriakoaren ekoizpen balioaren gaineko zerga, balio erantsiaren gaineko zerga eta elektrizitatearen gaineko zerga berezia itundu beharra, eta xedatzen du ezen, zenbait salbuespen izan ezik, lurralde historikoe-tako erakunde eskudunek Estatuak unean-unean ezartzen dituen edukizko eta formazko arau berberak aplikatu behar dituztela.

Aurrekoarekin bat etorritik, xedapen honen xedea da Arabako ordenamendu juridikora egokitzea aipatutako abenduaren 27ko 8/2023ko Errege Lege Dekretuan hartutako zerga neurriak eta, hartara, aipatutako aldaketak txertatzea, Ekonomia Itunaren 23 quater, 26. eta 33. artikuluetan ezarritakoa betetzeko.

Era berean, xedapen honen xedea da Barne merkatuaren funtzionamenduan zuzeneko eragina duten saiheste fiskaleko praktiken aurkako arauak ezartzen dituen Kontseiluaren 2016ko uztailaren 12ko 2016/1164 (EB) Zuzentarauaren transposizioa presaz osatzea, Europako Batzordeak hala eskatuta.

Zuzentzarau hori Europar Batasunean (EB) tributazio bidezkoagoa, sinpleagoa eta eraginkorragoa lortzeko Europako Batzordearen neurri multzoaren barruan kokatzen da. Horretarako, zenbait neurri zehatz ezartzea aurreikusten da, plangintza fiskal erasokorra saihesteko, garden-tasan fiskala handitzeko eta EBko enpresa guztientzat baldintza ekitatiboak sortzeko.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 48. artikulua aldatu egin zen 2020rako zerga neurriari buruzko abenduaren 20ko 25/2019 Foru Arauaren bidez, Kontseiluaren 2016ko uztailaren 12ko 2016/1164 (EB) Zuzentzaraua egokitzeak. Aldaketa horren ondoren, agindu horretan aurreikusitako errenten egozpenak, zergadunaren gehiengo partaidetza duten entitateek lortutako errentez gain, atzerriko establezimendu iraunkorren bidez lortutakoak ere hartzen zituen eraginpean (zergadunaren beraren eta haren gehiengo partaidetza duten entitateen establezimendu iraunkorrak).

Kontseiluaren 2016ko uztailaren 12ko 2016/1164 (EB) Zuzentzarauan xedatutakoaren arabera, eta transposizio agindua betetze aldera, aldaketa honek adierazten du ezen, zergadunaren gehiengo partaidetza duen entitateak establezimendu iraunkor baten bidez lortzen baditu atzerriar errentak, eta errenta horiek sozietateen gaineko zergaren izaera bereko edo antzeko karga baten pean ez badaude edo handik salbuetsita badaude zergadunaren gehiengo partaidetza duen erakundeak egoitza duen herrialdean edo lurraldean, egoitza duen jurisdikzioan entitate

ez-egoiliarak ordaintzen duen Espainiako sozietateen gaineko zergaren izaera bereko edo antzeko zerga baten zenbatekoa zenbatzeko, ez dela kontuan hartu behar establezimendu iraunkor hori, establezimendu iraunkorraren zein partaidetzapeko entitatearen ordaindutako zergen eta lortutako errenten zenbaketa erantsiak ez dezan ahalbidetu saihestea partaidetzapeko entitatearen errentak zergadun espainiarraren zerga oinarrian egozte.

Azken batean, aldaketa honen helburua da bermatzea, zergadunaren gehiengo partaidetza duen entitatearen establezimendu iraunkorraren bidez zein zergadunaren gehiengo partaidetza duen entitateak lortutako errenten tributazio efektiboa kalkulatzeko, entitate bereziaren ikuspegi aplikatuko dela. Horrela, errenta horien tributazio efektiboa bereiz zehaztuko da partaidetzapeko entitatearen jurisdikzioan eta haren establezimendu iraunkorrarenean, hurrenez hurren, eta jurisdikzio bakoitzean lortutako errentak eta ordaindutako zergak soilik kontuan hartuta, eta betiere establezimendu iraunkorragatik lortutako errentak zergadunaren gehiengo partaidetza duen entitatearen jurisdikzioan tributaziotik salbuetsita badaude edo haren kargapean ez badaude.

Aztertu da Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz egindako arau inpaktuaren txosten laburra.

Horregatik, bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren 8. artikulua eta Arabako Foru Aldundiaren gobernuari, antolaketari eta araubide juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauak Aldundiari ematen dizkioten eskumenak baliatuz, hau

## XEDATZEN DUT

### I. KAPITULUA

#### Balio erantsiaren gaineko zerga

#### **1. artikulua. Aldatzea Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretua**

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuaren hamalagarren xedapen iragankorra aldatu da, eta honako testu hau izango du:

“Hamalagarrena. Araubide erraztua eta nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako araubide berezia aplikatzeko mugak 2016tik 2024ra arteko ekitaldietan.

2016ko, 2017ko, 2018ko, 2019ko, 2020ko, 2021eko, 2022ko, 2023ko eta 2024ko ekitaldietarako, arau honetako 122. artikulua Bi apartatuaren 2. eta 3. zenbakietako lehenengo gidoian eta 124. artikulua Bi apartatuaren 6. zenbakian ezartzen den magnitudea, 150.000 euro, hemen dik aurrera 250.000 euro izango da.”

#### **2. artikulua. Otsailaren 14ko 2/2023 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua aldatzea, Arabako zerga araudira egokitzekoa balio erantsiaren gaineko zergan, zerga berezietan, energia elektrikoaren ekoizpen balioaren gaineko zergan eta berandutze interesean egin diren hainbat aldaketa**

Otsailaren 14ko 2/2023 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren 4. artikulua Hiru apartatua aldatzen da. Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu horren bidez, Arabako zerga araudira egokitu ziren balio erantsiaren gaineko zergan, zerga berezietan, energia elektrikoaren ekoizpen balioaren gaineko zergan eta berandutze interesean egindako hainbat aldaketa. Honela idatzita geratzen da:

“Hiru. Balio erantsiaren gaineko zergaren zerga tasa, Europar Batasunaren barruko elikagai emate, inportazio eta eskuratze jakin batzuei aldi baterako aplikatzekoa, bai eta baliokidetasun errekarguaren ondorioetarako ere.

2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin eta 2024ko ekainaren 30era arteko indarrarekin:

1. Balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko 5eko tasa aplikatuko zaie Europar Batasunaren barruko honako produktu hauen entreegi, inportazioei eta eskuratzeei:

- a) Oliba eta hazi olioak.
- b) Elikadura pastak.

Eragiketa horiei aplikatu beharreko baliokidetasun errekarguaren tasa ehuneko 0,62 izango da.

2. Balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko 0ko tasa aplikatuko zaie Europar Batasunaren barruko honako produktu hauen entreegi, inportazioei eta eskuratzeei:

a) Ogi arrunta, bai eta ogi arrunt izoztuaren oreka eta ogi arrunt izoztua ere, ogi arrunta egiteko baino ez direnak erabiltzen.

b) Ogi irinak.

c) Edozein animalia espezieko ekoiztako esne mota hauek: naturala, ziurtatua, pasteurizatua, kontzentratua, gaingabetua, esterilizatua, UHT, lurrundua eta hautsa.

d) Gaztak.

e) Arrautzak.

f) Frutak, barazkiak, lekaleak, tuberkuluak eta zerealak, baldin eta Elikadura Kodearen eta hura garatzeko emandako xedapenen arabera produktu naturalak badira.

Eragiketa horiei aplikatu beharreko baliokidetasun errekarguaren tasa ehuneko 0 izango da.

3. Zerga tasaren murrizketak kontsumitzaileari egingo dio mesede erabat, eta, beraz, murrizketaren zenbatekoa ezin izango da erabili, ez osorik, ez partzialki, enpresa mozkinaren marjina handitzeko, eta, ondorioz, produktuen ekoizpen, banaketa edo kontsumo katean prezioak handitzeko, hargatik eragotzi gabe gizarte erantzukizunagatik eragindako sektoreek beren gain hartzen dituzten eta iragartzen dituzten konpromiso gehigarriak.

Neurri horren eraginkortasuna prezioen bilakaeraren jarraipen sistema baten bidez egiaztatuko da, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak bere eskumenen esparruan egin beharreko jarduketak alde batera utzita.”

### **3. artikulua. Europar Batasunaren barruko elektrizitate emate, inportazio eta eskuratze jakin batzuei aldi baterako aplikatzekoa zaien balio erantsiaren gaineko zergaren zerga tasa**

1. 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin eta 2024ko abenduaren 31ra arteko indarrarekin, balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko 10eko tasa aplikatuko zaie honako hauei egindako Europar Batasunaren barruko elektrizitate emate, inportazio eta eskuratzei:

– Potentzia kontratatua (potentzia termino finkoa) 10 kW edo gutxiago duten elektrizitate hornikuntzako kontratuen titularrak, hornikuntzaren tentsio maila eta kontratazio modalitatea gorabehera, fakturazioaldiaren azken egunaren aurreko azken hilabete naturaleko eguneroko merkatuko batez besteko prezio aritmetikoa MWh-ko 45 euro baino handiagoa izan bada.

– Elektrizitateko gizarte bonuaren onuradun izan eta kaltebera larritzat edo gizartetik baztertzeko arriskuan dagoen kaltebera larritzat aitortuta dauden elektrizitate hornikuntzako kontratuen titularrak, bat etorri urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretuan, zeinaren bidez arautzen baitira kontsumitzaile kalteberaren figura, gizarte bonua eta etxean energia elektrikoa kontsumitzen dutenak babesteko beste neurri batzuk, ezarritakoarekin.

2. 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin eta 2024ko martxoaren 31ra arteko indarrarekin, balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko ehuneko 10eko tasa aplikatuko zaie gas naturalaren EB barruko entrega, inportazio eta eskuratzei.

3. 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin eta 2024ko ekainaren 30era arteko indarrarekin, balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko ehuneko 10eko tasa aplikatuko zaie biomasatik datozen briketen eta pelleten EB barruko entreegi, inportazioei eta eskuratzeei eta egurretarako zurari.

## II. KAPITULUA

### Elektrizitatearen gaineko zerga berezia

#### 4. artikulua. Elektrizitatearen gaineko zerga bereziaren zerga tasa

2024ko urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra arte, elektrizitatearen gaineko zerga berezia ehuneko 2,5eko zerga tasan eskatuko da, eta ehuneko 3,8ko zerga tasan 2024ko apirilaren 1etik ekainaren 30era arte.

Zerga tasa horiek aplikatzearen ondoriozko kuotak ezin izango dira honako zenbateko hauek baino txikiagoak izan:

a) 0,5 euro megawatt orduko (MWh), hornitutako edo kontsumitutako elektrizitatea industria erabileretarako, portuetan atrakatutako aisialdirako ontzi pribatuak ez diren ontzietarako edo trenbideko garraiorako erabiltzen bada.

b) 1 euro megawatt orduko (MWh), hornitutako edo kontsumitutako elektrizitatea beste erabilera batzuetarako bada.

Aurreko letretan aurreikusitako baldintza betetzen ez denean, haietan adierazitako zenbatekoak zerga tasatzat hartuko dira, eta megawatt/orдутan (MWh) adierazitako aldiaren guztizko hornidurari edo kontsumoari aplikatuko zaizkio.

Ondorio horietarako, honako hauek joko dira industria erabileratzat:

a) Goi tentsioan edo industria lantegi eta instalazioetara hornitzen dena.

b) Behe tentsioan hornitzen dena nekazaritzako ureztaketak egiteko.

Aurreko a) eta b) letretan jasotako gutxieneko zerga ez da aplikatuko zerga bereziak arautzen dituen otsailaren 16ko 1/1999 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren 101. artikulua 1. apartatuaren a), b), c) eta d) letretan aurreikusitako kasuetan.

## III. KAPITULUA

### Energia elektrikoaren ekoizpen balioaren gaineko zerga

#### 5. artikulua. Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren 2024ko ekitaldiko zerga oinarria eta ordainketa zatikatuen zenbatekoak

2024ko ekitaldian hau izango da energia elektrikoaren ekoizpen balioaren gaineko zergaren zerga oinarria: instalazio bakoitzean zergaldian ekoitzi eta sistema elektrikoan sartutako energia elektrikoagatik (zentral barretan neurtuta) zergadunak jaso beharreko guztirako zenbatekoa ken sisteman lehen hiruhileko naturalean sartutako elektrizitateari dagozkion ordainsarien erdia, ken sisteman bigarren hiruhileko naturalean sartutako elektrizitateari dagozkion ordainsarien laurdena.

Lehen hiruhilekoko ordainketa zatikatuaren zenbatekoa kalkulatzeko, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren (zentral barretan neurtuta eta sistema elektrikoan txertatuta zergaldi hasieratik urtearen lehen hiru hilabeteak amaitu arte) erdia izango da kontuan, eta Energia Elektrikoaren Ekoizpenaren Balioaren gaineko Zergaren uztailaren 9ko 24/2014 Foru Arauak 8. artikuluan ezartzen duen zerga tasa aplikatuko zaio.

Bigarren hiruhilekoko ordainketa zatikatuaren zenbatekoa kalkulatzeko, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioa (zentral barretan neurtuta eta sistema elektrikoan txertatuta zergaldi hasieratik urtearen lehen sei hilabeteak amaitu arte) izango da kontuan; kopuru horretatik, lehen hiruhileko naturalean sisteman sartutako elektrizitateari dagozkion ordainsarien erdia kenduko

da eta bigarren hiruhileko naturalean sisteman sartutako elektrizitateari dagozkion ordainsarien laurdena ere bai, Energia Elektrikoaren Ekoizpenaren Balioaren gaineko Zergaren uztailaren 9ko 24/2014 Foru Arauak 8. artikuluan ezartzen duen zerga tasa aplikatuko zaio eta gero aurretik 2024ko ekitaldiaren kontura egindako ordainketa zatikatuen zenbatekoa kenduko da.

Hirugarren eta laugarren hiruhilekoetako ordainketa zatikatuen zenbatekoa kalkulatzeko, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioa (zentral barretan neurtuta eta sistema elektrikoan txertatuta zergaldi hasieratik urtearen bederatzzi edo hamabi hilabeteak amaitu arte, hurrenez hurren) izango da kontuan; kopuru horretatik, lehen hiruhileko naturalean sisteman sartutako elektrizitateari dagozkion ordainsarien erdia kenduko da eta bigarren hiruhileko naturalean sisteman sartutako elektrizitateari dagozkion ordainsarien laurdena ere bai, Energia Elektrikoaren Ekoizpenaren Balioaren gaineko Zergaren uztailaren 9ko 24/2014 Foru Arauak 8. artikuluan ezartzen duen zerga tasa aplikatuko zaio eta gero aurretik 2024ko ekitaldiaren kontura egindako ordainketa zatikatuen zenbatekoa kenduko da.

#### IV. KAPITULUA

##### Sozietateen gaineko zerga

Barne merkatuaren funtzionamenduan zuzeneko eragina duten saiheste fiskaleko praktiken aurkako arauak ezartzen dituen Kontseiluaren 2016ko uztailaren 12ko 2016/1164 (EB) Zuzentzarauaren transposizioa

#### **6. artikulua. Sozietateen Gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Araua aldatzea**

2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin:

Aldatu egiten da Sozietateen Gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 48. artikuluan 1. apartatua. Honela geratzen da:

“1. Zergadunek beren zerga oinarrian sartuko dute entitate ez-egoiliar batek edo Espainiako lurraldean ez dagoen establezimendu iraunkor baten bidez lortutako errenta positiboa, baldin eta errenta hori artikuluko honen 2. apartatuan ezarritako motaren batekoa bada eta honako baldintza hauek betetzen badira:

a) Espainiako lurraldean egoitzarik ez daukan entitateari dagokionez, zergadunak, berak bakarrik nahiz foru arau honen 42. artikuluan 3. apartatuan xedatutakoaren arabera lotuta dauden pertsona edo entitateekin batera, ehuneko 50eko edo gehiagoko partaidetza edukitzea haren kapitalean, funts propioetan, emaitzetan edo boto eskubideetan, azken horren sozietate ekitaldia ixten den egunean.

Egoitza Espainiako lurraldean ez duten lotutako entitateen partaidetza Espainiako lurraldean egoitza duten lotutako pertsona edo entitateetan zehazten den zeharkako partaidetzaren zenbatekoan zenbatuko da.

Sartu beharreko errenta positiboaren zenbatekoa kalkulatzeko, emaitzetan daukan partaidetzaren proportzioa eta, horrelakorik ez bada, kapitalean, funts propioetan edo boto eskubideetan daukan partaidetzaren proportzioa hartuko da kontuan.

b) Entitate ez-egoiliarak edo Espainiako lurraldean ez dagoen establezimendu iraunkorren bidez ordaindutako kopurua (zerga honen berdina edo antzekoa den karga batengatik 2. apartatuan ezarritako errenta motetakoren bati egotzi ahal zaiona) zerga honen arauari jarraituz entitate ez-egoiliar horri zegokiokeen zenbatekoaren eta benetan ordaindu duenaren arteko diferentzia baino gutxiago izatea.

Apartatu honen lehenengo paragrafoaren b) letran aurreikusitako zenbatekoa zenbatzeko, ez da kontuan hartuko egoitza Espainiako lurraldean ez duen entitate baten establezimendu iraunkorra, baldin eta entitate hori ez badago zerga honen berdina edo antzekoa den karga baten mende edo karga horretatik salbuesita badago entitate horrek egoitza duen herrialdean edo lurraldean.

Sartutako errenta establezimendu iraunkor baten bidez lortzen denean, ez da aplikatuko foru arau honen 35. artikuluan ezarritako salbuespena.”

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Xedapen orokor hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta artikuluetan adierazitako ondorioak izango ditu.

Bigarrena. Gaikuntza.

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Hirugarrena. Batzar Nagusietara bidaltzea.

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau Arabako Batzar Nagusiei aurkeztuko zaie, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera berretsi edo baliogabetu dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko otsailaren 20a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*

**ITZIAR GONZALO DE ZUAZO**

*Ogasun zuzendaria*

**MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA**